# EpaiDigitalak eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak

### Mikrofonoa isildu

Ez duzunean hitz egiten mikrofonoa isilduko duzu, horrela, elkarrizketaren kalitatea jeistea eta hitz egiten ari dena ondo ez entzutea eragiten duten inguruneko zarata, eztul eta aulki-mugimenduak elkarrizketan sartzea saihestuko dituzu. Gogoratu, hitz egiten duzun bakoitzean mikrofonoa aktibatzea.

### Ingurunea prestatu

Atzeko planoan kolore argia jarri, argitasunarekin, argi kontra eta itzalik gabe, kamera garbitu. Irudiaren erdian kokatu zaitez (salako irudian zentratuta agertzeko).



### Eramangarriak Salan

Salan, EpaiDigitalera konektatzeko erabiltzen diren eramangarri guztiak soinu gabe egon behar dira, JustizialkusBiko mikrofonoetan soinu akoplerik ez izateko. Salan daudenen ahotsak salako mikrofonoetatik jasoko dira.

### Denboraz sartu

Hitzartutako ordua baino 5 minutu lehenago sartu.

### Mugikorra soinu gabe

Mugikorra soinu gabe jarri, egintza telematikoan zaratarik ez entzuteko.

### Hobe entzungailuekin

Erabili mikrofonoa duten entzungailuak, bozgorailuak eta web-kameraren mikrofonoak erabili ordez. Horrela, soinua argiagoa izango da, ingurune-zarata eta soinu akopleak ekidinez.



### Dokumentuak aurkeztu Salan

Salan aurkeztu beharreko dokumentuak, digitalizatu eta biltegiragailu batean eraman.